



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilak 28

Vitoria-Gasteiz, 28 de enero de 2020

Lehendakaritza

GOBERNU KONTSEILUAK EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LEGEAREN ALDAKETA ONARTU DU

- **Berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea dakar**
- **Gobernuak berretsi egiten du emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako borrokarekiko konpromisoa, azken txostenean jasotzen den 25 milioi euroko inbertsioarekin**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren lege-proiektua onartu du. Izaskun Landaida Emakundeko zuzendaria Josu Erkoreka bozeramailearekin batera agertu da hedabideen aurrean, lege berriak erantzun nahi dituen erronka garrantzitsuenen berri emateko; haren hitzetan, "berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako letra larriz idatzitako politika eta herri ituna" ahalbidetu nahi ditu lege berriak. Landaidak adierazi du beste urrats bat dela Eusko Jaurlaritzak berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzearen alde duen konpromisoan. Konpromiso horren adibide di emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako eta prebentziorako zerbitzuetan 25 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa, "Eusko Jaurlaritzak EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean ematen duen erantzuna" txostenean zehazten den bezala. Gaurko bileran ere ikusi da txosten hori. Inbertsio honi erantsi behar zaio foru aldundiena alor honetan, zazpi miloi eurotik gorakoa, eta udalena, zenbatze prozesuan dagoena oraindik.

Berdintasunerako Legea onartu zenetik hamabost urte igaro dira. Lege hori aitzindaritzat hartu da, eta Nazio Batuen Zerbitzu Publikoaren Saria ere jaso du. Orain egin zaion aldaketaren arrazoia izan da berdintasun-politikak eta indarkeriaren kontrako politikak indartzearen beharra eta testuinguru sozial eta arauemaile berriaren ondoriozko behar eta erronka berrietara egokitu beharra (Istanbulgo Hitzarmena, 2030 Agenda, Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna ...). Ildo horretan, lege berriaren erronka nagusietako bat izan da emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatzeari buruzko ikuspegi bat bermatzea, Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen duen bezala.

Legeak berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak indartzea aurreikusten du, honako hauetan islatzen direnak, besteak beste: berdintasun-egiturak indartzea, langile publikoak berdintasunean prestatzeko betebeharra, guraso-baimen berdinak eta besterenezinak orokortzea, soldata-arrakalari aurre egiteko neurriak gehitzea, emakumeen aurkako indarkeriaren mota guztietako biktimenzako laguntzak zabaltzea, epai judizialean aurreikusitako kalte-ordainak jaso ez dituzten biktimenzat, bai eta indarkeria matxistaren ondorioz umezurtz geratu diren seme-alabentzat ere.

Emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea Jaurlaritzak duen lehentasunezko helburu bat dela azpimarratu du lehendakariak, eta legearen aldaketa hau beste urrats bat dela bide honetan, “urrats garrantzitsua berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren kontrako politikan herri itun handi bat ahalbidetzen duelako”. Erronken artean azpimarratu ditu berdintasun politiken indartzea eta testuinguru arauemaile eta sozial berriaren behar berrietara egokitu beharra (Istanbulgo Hitzarmena, 2030 Agenda, Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna ...).

Lege berriak bermatzen du emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren arazo sistemiko eta unibertsalaren barruan kokatzen duen ikuspegia, Istanbulgo Hitzarmenak eskatzen duen bezala, eta berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta teknikoak indartzea ere aurreikusten du.

Erronkak eta neurriak

Legearen erronka garrantzitsuetako bat administrazio publikoetako langile guztien berdintasuneko prestakuntza bermatzea zen. Hala, berdintasunaren arloko derrigorrezko prestakuntza, progresioa eta iraunkorra, aurreikusten du euskal botere publikoetako langile guztientzat eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko erantzunean inplikaturako langileentzat, derrigorrezko etengabeko prestakuntza.

Beste erronka bat izan da haur eta nerabeei babes handiagoa ematea. Hala, genero-arrazoiengatik indarkeriazko jokabideak lehen pertsonan jasaten dituzten nerabeak eta neskatok ez ezik, legeak emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek jotzen dituzten bai eta indarkeria hori gauzatzen den ingurunean bizi diren haurrak eta nerabeak eta mendekotasuna duten beste pertsona batzuk ere. Ildo horretan, seme-alaba indarkeria matxistaren ondoriozko umezurtzentzako laguntzak sortzen ditu.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien biktimei arreta emateko sistema zabaltzea izan da jorratu beharreko beste erronka bat. Bikotekideak, bikotekide ohiak edo familia barrukoak eragindako indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimez gain, legeak arautu eta zabaltzeko egiten du aipaturako indarkeriaren gainerako adierazpenen biktimei arreta emateko sistema, besteak beste, sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimentzako.

Aldaketak biktimen erreparazio-eskubidea aitortzea ere ahalbidetzen du, eta biktima eta biziraun duten pertsona guztiei kalte-ordain proportzionatua bermatzeko neurriak hartzeko betebeharra planteatzen du, baita egia aitortzea, indarkeriazko gertaerak ez errepikatzeke bermea eta arretarako baliabide publikoen bidez errekuuperatzeko eskubidea. Halaber, biktimentzat beste laguntza ekonomiko bat aurreikusten du, lehendik daudenekin bateragarria, ebazpen judizial bidez ezarritako kalte-ordainak ez ordaintzeko kasuetarako.

Legea aldatzeak ikerketa areagotzea eta indarkeriari buruzko datuen erregistroa eta hedapena hobetzea du beste erronketako bat. Eremu horretan orain arte egindako lanaz harago, legeak emakumeen aurkako indarkeriaren

adierazpen desberdinen kasuei buruzko informazio partekatua emateko sistema elektronikoa bat bultzatzeko beharra ezartzen du, eta Berdintasunerako Behatokia sortzea planteatzen du, ikuspegi orokorra eta iraunkorra izatea ahalbidetuko duena.

Legeak, halaber, salaketaren zentraltasuna eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegi polizial-judiziala gainditzera jotzen du. Sistema polizialek eta judizialek emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako esku-hartzean eta biktimen babesean duten garrantzia alde batera utzi gabe, eta arlo horretan legeak egiteko eskumen-mugez jabetuta, legeak neurrien erdigunean jartzen ditu biktimen eta bizirik atera direnen eskubideak eta haien ahalduntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio edo lankidetzak maila edozein dela ere.

Arau berriak, halaber, printzipio orokorren interseksionalitatea jasotzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko esku-hartze publiko ororen inspirazio-ikuspegi gisa, eta indarkeria matxistaren aurrean erakundeen erantzuna egokitzeko beharra ezartzen du, biktima orok arreta integrala, doakoa, eskuragarria eta kalitatezkoa jasotzeko duen eskubidea bermatzeko, edozein dela ere bere egoera pertsonala, soziala eta administratiboa, eta, bereziki, zaurgarritasun-egoera handienera daudenena.

Prozesua

Legea aldatzeko prozesua parte-hartzailea izan da. Kontsulta egin zaie Eusko Jaurlaritzako sail guztiei, hiru foru-aldundiei eta EUDELi, eta kontsulta publikora eraman da. Testuak 400 ekarpen baino gehiago jaso ditu, bai gizarte zibilaren aldetik, bai erakundeen aldetik: 300 ekarpen inguru gizarte zibilaren aldetik, eta ehundik gora administrazio ezberdinen eskutik.

Prozesuan, honako hauek parte hartu dute: generoan eta berdintasunean adituak diren pertsonak, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta arretan eskumena duten erakunde publikoak, talde feministak, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan, detekzioan eta arretan esku hartzen duten profesionalak, indarkeriaren biktimekin lan egiten duten gizarte-eragileak, erakundeak eta elkarteak.

Eusko Jaurlaritzaren erantzuna indarkeriaren aurrean

Bestetik, "Eusko Jaurlaritzak EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean emandako erantzuna" izeneko txostena onartu du Gobernu Kontseiluak, eta bertan zehazten dira Eusko Jaurlaritzak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak. Emakunderekin batera, Jaurlaritzako sei sailek (Segurtasuna, Enplegua eta Gizarte Politikak, Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza, Osasuna, Lana eta Justizia eta Hezkuntza) hainbat zerbitzu eta prestazio eskaintzen dituzte modu koordinatuan. 2018an egindako inbertsioa kuantifikatzen da txostenean: 25.212.764 euro guztira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

EUSKO JAURLARITZAK 24 ASTE ARTE LUZATU DU GURASO BAIMENA AMA EDO AITA BAKARREZ OSATUTAKO FAMILIEN KASUETAN

- **Neurriak 2020ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina izango du eta familia- eta lan-bizitza uztartzen laguntzeko helburua izango du, horren bidez jaiotza-tasa sustatzeko**
- **Euskadiko Administrazio Orokorrean, Ertzaintzan, Osakidetzan, Hezkuntzan eta Justizian lan egiten duten 70.000 lagunentzako jarriko da martxan, baina Eusko Jaurlaritzak neurria Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko sozietateetara, erakundeetara, fundazioetara eta partzuergoetara zabaldu nahi du**

Eusko Jaurlaritzak *“Euskal Autonomia Erkidegoko langileen kontziliaziorako baimenak parekatzea onartzen duen Dekretuaren”* lehen zirriborroa aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean. Bertan, guraso bakar batez osatutako familien kasuan, gurasotasunagatik egungo 18 asteko baimena —% 100 ordaindua— 24 astetara luzatzeko proposamena jaso da. Baimen hori bi astez luzatuko da seme-alaben kopurua bi baino handiagoa denean, eta/edo beste bi astez luzatuko da haur horiek desgaitasunen bat badute.

Dekretua onartu ondoren, neurri hori Euskal Administrazio Publikoan lan egiten duten 70.000 pertsona ingururi zuzenean aplikatuko diete: Administrazio Orokorra, Justizia, Ertzaintza, Osakidetza eta Hezkuntza. Horretaz gain, dekretuak baimena Autonomia Erkidegoko sektore publiko osora zabaltzea ahalbidetzen du: erakundeak, sozietateak, fundazioak, partzuergoak, etab.

Neurriak 2020ko urtarrilaren 1eko atzeraeragina izango du eta, indarrean dauden gainerako gurasotasun-baimenek bezala, Euskal Administrazio Publikoak jada aitortutako jaiotza, adopzio, zaintza, harrera eta beste hainbat kasutan emango da.

FAMILIA DIBERTSITATEA ETA BATERAGARRI EGITEA

Dekretu aitzindari honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua da familia- eta lan-bizitzak bateragarri egiten lagunduko duten politika publikoetan aurrera egitea; ezinbesteko urratsa jaiotza-tasa sustatzeko eta Euskadik aurretik duen erronka demografikoari ekiteko. Horren haritik, administrazio publikoek neurri aurrerakoienak lehendabizi esparru publikoan abian jartzeko obligazioa dute, era horretan, efektu traktorea eragiteko eta neurri horiek, pixkanaka, lan-esparru pribatura zabaltzen laguntzeko.

Neurri hori ere aitzindaria da Euskadin familia-eredu berriekiko dagoen errespetuan eta haiei ematen zaien babesean. Kasu honetan, guraso bakar batez osatutako familiak dira.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 350.000 EURO BIDERATU DITU ABERE ARRAZA GARBIAK HOBETZEN ETA SUSTATZEN DITUZTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZERA

- **Emakume Nekazarien Estatutua betez, ez zaie laguntzarik eta dirulaguntzarik emango beren zuzendaritza organoetan emakumeak ez dituzten elkarteei**
- **Kalitateko abeltzaintzarako eta landa inguruneko biodibertsibitatearako laguntza bat dira, Nekazaritzako Elikagaien Balio Kateko funtsezko oinarriak baitira**

2020an Euskal Autonomia Erkidegoan abere arraza garbien elkarte eta erakundeak diruz laguntzeko osotara eta gehienez ere bideratuko diren 350.000 euroko dirulaguntzak deitzeko Ekonomiaren gehienez ere Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen Dekretua onartu du Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, bere azken bileran. Emakume Nekazarien Estatutua betez, dirulaguntza horiek ez zaizkie emango beren zuzendaritza organoetan emakumeak ez dituzten elkarteei.

Hobekuntza programak gauzatuz (kontserbazioa edo hautaketa), arraza hedatuz eta bultzatuz eta errendimenduen kontrola eta balorazio genetikoaren ebaluazioa eginez, arraza garbien liburu genealogikoak kudeatzen dituzten abeltzaintza elkarteentzat dira laguntzak.

Era berean, elkarte horiek lortutako emaitzen zabalkundea egin eta abereak eta abereen produktuak saltzen lagundu behar dute, ekoizpen eraginkorragoa lortzea eta abeltzaintzako ustiategiak errentagarriago egitea ahalbidetuta, programa berritzaileak eta teknologia berriak apurka-apurka aplikatuz. Euskal Autonomia Erkidegoko landa guneak eta mendiko nekazaritzakoak garatzen eta bultzatzen ere laguntzen dute.

AEPEren esparruan

Laguntza horiek Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak kudeatzen ditu, eta Nekazaritzako elikagaien balio katea, hau da, kalitateko abeltzaintza, biodibertsitatearen zaintza eta elikadura osasuntsua eta iraunkorra ere babesteko politikaren barruan sartzen dira, horiek dira-eta Abeltzaintza eta Elikaduraren Plan Estrategikoak (AEPE), legegintzaldi honetan eremu horietako jarduerak jarraituko dituzten ildo nagusiak markatzen dituen planak, jasotzen dituen funtsezko oinarriak.

Hauek dira lagundu ahal izango diren gastuak:

- Abereen lehiaketak antolatzea eta horrelako lehiaketetan parte hartzea.
- Liburu genealogikoak sortzea eta zaintzea

- Ganaduaren kalitate genetikoa eta errendimendua egiaztatzeko probak

Eskaeren aurkezpena eta balorazioa

Deialdi honetako laguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Bide elektronikotik aurkeztuko dira. Eskaera, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentuak izapidetzeko zehaztapenak helbide honetan daude eskuragarri:

http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/ (gaztelania)

http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/ (euskara)

Zuzkitutako 350.000 euroak diruz lagundu daitezkeen elkarte onuradun guztien gehieneko gastuetarako nahikoa ez badira, dirulaguntza hainbanatuko da Legean aurreikusitakoaren arabera.

Hezkuntza

**HEZKUNTZA SAILAK 14,5 MILIOI EURO BIDERATU DITU IKASTETXE
PUBLIKOETARAKO MATERIAL INFORMATIKOEN HORNIKUNTZA,
INSTALAZIO ETA KONFIGURAZIORAKO ESPARRU-AKORDIORAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe eta laguntza-zentro publikoen (Berritzeguneen) hezkuntza eta kudeaketa-beharrak asetzeko beharrezkoa den material informatikoa hornitzeko, instalatzeko edota konfiguratzeko Esparru-akordioa egiteko.

Hezkuntza Sailak, beharrezko duten ekipamendu informatikoaz hornitzen ditu ikastetxe horiek zenbait programaren bidez, Berriztu edo Sare_Hezkuntza planak, kasu. Urtean zehar, ekipamendu informatiko berri horretaz hornitzen jarraitu behar da, hainbat arrazoi direla medio, hala nola, ekiporik zaharrenak berritzea edo berritzea, ekipamendu-premia handitu izana ikastetxeak handitzeagatik, edo zentro sortu berriek ere ezinbesteko tresna hauek behar dituztelako. Egun, eta Sare_Hezkuntza programaren esparruan, Hezkuntza Sailak ikasle zein irakasleen ekipoak berritzeari ekingo dio, ekipo modernoago eta eguneratuagoekin ordezkatzuz. Era berean, arbel digitalak berritzeari ere ekingo dio, pantaila interaktiboekin ordezkatzuz.

Erosketa horiek egiteko biderik egokiena Esparru Akordio bat egitea da, akordio horretatik eratorritako kontratazioen bidezko erosketak behar den unean eta beharren arabera egiteko aukera ematen duelako.

Esparru Akordioa 14,5 milioi euroko balioarekin zenbatetsi da (BEZik gabe), bi urteko indarraldiarekin, eta gehienez ere bi urteko luzapena izan dezake.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 354.000 EURO BIDERATU DITU KULTUR SORKUNTZA BULTZATZEKO DIRU-LAGUNTZETARA

- **Laguntza horien bidez 56 kultur ekimen babestu ziren iaz, literaturan, zineman, arte eszenikoetan eta musikan, besteak beste**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 354.000 euroko partida onartu du gaurko bileran, 2020. Urtean kultura-sorkuntzarako diru-laguntzak emateko. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatutako deialdi honek sei modalitate izango ditu aurten, 'proiektuen eta prototipoen atariko diseinuetara' bideratutako modalitatea desagertu baita. Joan den ekitaldian hainbat kultura-sektoreri lotutako 56 proiektu lagundu ziren diru-laguntza deialdi honen bidez.

Deialdi honen helburua da kultur sorkuntza bultzatzea eta sortzaileen lana erraztea kultura-sektore ezberdinetan. Horrela, laguntza-ildo honek sektore gehienak hartzen ditu, eta gehitzen da sektorez sektore dauden laguntzei. Aurtengo deialdiaren berritasun nagusia da desagertu egin dela "proiektuen eta prototipoen atariko diseinuak" egiteko modalitatea, eta, aldi berean, handitu egin dela "musika-konposizioen" zuzkidura ekonomikoa (64.000 euro aurten, eta 50.000 euro iaz) eta "koreografiaren sorkuntza" modalitatearena (54.000 euro aurten, iaz 28.800 euro).

Aurtengo sei modalitateetarako aurreikusitako zuzkidura honela banatuko da:

- Antzerki testuak, 52.000 euro.
- Gidoi zinematografikoak, 104.000 euro.
- Musika konposizioa, 64.000 euro.
- Gazteei zuzendutako euskarazko literatur testuak, 40.000 euro.
- Euskarazko ipuin eta nobela laburrak, 40.000 euro.
- Koreografiak sortzea, 54.000.

Iragan 2019an egindako azken deialdian emandako laguntzak ondokoak izan ziren: 8 laguntza antzerki-testuak sortzeko; beste 8 gidoiak idazteko; 9 diru-laguntza musika-lanak idazteko; 12 laguntza atariko diseinuak sortzeko; 5 laguntza eman ziren gazteei zuzenduriko euskarazko literatura-testuak idazteko; beste 5 euskarazko ipuinak eta eleberri laburrak idazteko; eta, azkenik, 9 laguntza koreografiak sortzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 105.000 EURO BIDERATU DITU KOMIKI, ELEBERRI GRAFIKO ETA ILUSTRATUTAKO LIBURUEN SORKUNTZA BULTZATZEA XEDE DUTEN DIRU-LAGUNTZETARA

- **Ilustrazioari loturiko zazpi proiektu babestuko dira aurten Legealdi hasieran sortutako deialdi honen bitartez**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak komiki, eleberrri grafiko eta ilustratutako liburuen sorkuntza grafiko bultzatzea xede duten diru-laguntzen deialdia onartu du bere gaurko bileran. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 105.000 euro bideratuko ditu deialdi honetara, laguntzak bi modalitatetan banatuko direlarik. Alde batetik, 60.000 euro bideratuko dira komiki eta eleberrri grafikoen sorkuntza sustatzera. Bigarren modalitatearen bitartez, bestetik, 45.000 euro inbertituko dira ilustratutako album edo liburuen sorkuntza bultzatzeko.

Deialdi hau 2017. urtean jaiotzen zen, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak bultzatuta, sortzaileen talentua bultzatu eta arlo honetan Euskadin azkenaldian egin izan den lan bikaina sendotzeko xedearekin. Azken hiru urtetan bezalaxe, deialdiak bi modalitate jasoko ditu aurtengoan ere:

- Lehen modalitatean 15.000 euroko lau laguntza emango dira, komiki edo eleberrri grafikoak sortzea helburu duten ilustrazio-proiektuak diruz laguntzeko.
- Bigarren modalitatearen bitartez 15.000 euroko hiru laguntza emango dira, ilustratutako albumak sortzea helburu duten ilustrazio-proiektuak diruz laguntzeko.

Horrez gain, nabarmendu beharra dago deialdiak mekanismo ezberdinak aurreikusi dituela emakumeen eta ilustratzaile gazteen lana leheneste aldera. Honela, bi modalitatetan -komikiak eta ilustratutako albumak-, gutxieneko puntuazioa gainditu duten proiektuen artean diru-laguntza bat erreserbatuko da, gutxienez, 30 urtetik beherako sortzaileentzat eta beste diru-laguntza bat, gutxienez, emakumeentzat (30 urtetik beherakoentzat erreserbatutako diru-laguntza hori emakume batek lortuko balu, diru-laguntza bakar bat erreserbatuko da). 2018ko ediziotik “ilustrazioaren kalitate artistikoa” (40 puntutik 50 puntura igaro zen iaz) eta “ilustrazioaren tratamendua” (10 puntutik 30era) atalek balorazio handiagoa dute.

Segurtasuna

POLIZIEN ARTEKO ELKARLANAREN ETA KOORDINAZIOAREN ARLOKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN EREDUA ALDATZEA ONARTU DA

Gobernu Kontseiluak gaur erabaki du, Segurtasun Sailak proposatuta, polizien arteko elkarlanaren eta koordinazioaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin izenpetzeko lankidetzaz hitzarmenaren aldaketa onartzea.

Udalekin izenpetzeko hitzarmen-ereduan indarraldia hitzarmen espezifikoko bakoitza izenpetzen zen egunaren biharamunetik urte horretako abenduaren 31ra artekoa izatea itundu zen, bai eta hitzarmena, denuntziatu ezean, urte urte luzatu ahal izatea ere.

Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, indarrean jarri izanaren ondorioz, nahitaezkoa da hitzarmenek iraupen bat jasotzea, eta debekatuta dago hitzarmenak automatikoki luzatzea. Horren aurrean, hitzarmen-ereduaren zazpigarren klausula aldatu da indarrean dagoen araudira egokitzeko.

Horrela, hitzarmena izenpetzen den egunean jarriko da indarrean, eta lau urteko iraupena izango du. Aurreikusitako lau urteko epe hori amaitu aurretik, edozein unetan, sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute beste lau urte luzatzea edo bertan behera uztea.

Gobernu Kontseiluan hitzarmen-eredua onartuta, berriz izenpetuko dira hitzarmenak atxikitako udalekin, bai eta lehenbiziko aldiz atxikitzea erabakitzen dutenekin ere.

Guztira 64 udalerrik berrituko dute hitzarmena, eta beste bik lehenbiziko aldiz izenpetzea eskatu dute.

Presidencia

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA MODIFICACIÓN DE LA LEY PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES

- **Supone un refuerzo de los recursos económicos, humanos y técnicos para el desarrollo de las políticas de igualdad**
- **El Ejecutivo reafirma su compromiso con la lucha contra la violencia hacia las mujeres, con una inversión que, según el último informe, es de más 25 millones de euros**

El Consejo de Gobierno ha aprobado esta mañana el Proyecto de Ley de segunda modificación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres. La Directora de Emakunde, Izaskun Landaida, ha comparecido ante los medios junto con el Portavoz Josu Erkoreka para dar cuenta de los retos más importantes a los que quiere dar respuesta la nueva ley, que, en sus palabras, quiere posibilitar “una política y un pacto de país con mayúsculas por la igualdad y contra la violencia machista”. Landaida ha señalado que se trata de un paso más en el compromiso del Gobierno Vasco por la igualdad y por la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Ejemplo de ese compromiso son los más de 25 millones de euros de inversión del Gobierno en servicios de atención y prevención de la violencia contra las mujeres que recoge el último Informe “Respuesta del Gobierno Vasco ante la violencia contra las mujeres en la CAPV” del que se ha dado cuenta en la reunión de hoy. Una inversión a la que habría que añadir la de las Diputaciones de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa que superaría los 7 millones euros. Actualmente se está trabajando en la identificación de la inversión en el ámbito municipal.

Tras quince años desde la aprobación de la ley para la igualdad, que ha sido considerada pionera e incluso ha recibido el Premio al Servicio Público por las Naciones Unidas, su modificación ha llegado motivada por la necesidad de reforzar las políticas de igualdad y el trabajo para la erradicación de la violencia machista contra las mujeres para adaptarla a las nuevas necesidades y retos derivados del nuevo contexto social y normativo (Convenio de Estambul, Agenda 2030, Pacto de Estado contra la Violencia...). En este sentido, uno de los grandes retos de la nueva ley ha sido **garantizar una visión sobre la ubicación de la violencia contra las mujeres dentro del problema sistémico y universal de la desigualdad** de mujeres y hombres, tal y como insta a legislar el Convenio de Estambul.

La ley prevé el refuerzo de los recursos económicos, humanos y técnicos para el desarrollo de las políticas de igualdad que tienen su reflejo en el refuerzo de las estructuras de igualdad, en la obligatoriedad de formación en igualdad del personal público, en la generalización de los permisos parentales iguales e intransferibles, en el incremento de medidas para combatir la brecha salarial, en la ampliación de las ayudas a todo tipo de víctimas de violencia contra las mujeres, en la creación de ayudas para las víctimas que no hayan percibido las

indemnizaciones previstas en sentencia judicial, así como para hijos e hijas huérfanos a consecuencia de la violencia machista.

Desafíos y medidas

Uno de los desafíos importantes de la ley era garantizar la **formación en igualdad de todo el personal de las administraciones públicas**. Así, prevé la formación obligatoria, progresiva y permanente, en materia de igualdad para todo el personal de los poderes públicos vascos y, en particular, para el personal implicado en la respuesta frente a la violencia machista contra mujeres, una formación inicial y continua obligatoria.

Otro reto ha sido el de dotar de **mayor protección a las niñas, niños y adolescentes**. Así, además de a las mujeres, adolescentes y criaturas que sufren en primera persona las conductas violentas por motivos de género, la ley considera expresamente como víctimas y supervivientes de la violencia machista contra las mujeres, a las niñas, niños y adolescentes y otras personas dependientes que convivan en un entorno en el que se ejerza dicha violencia. En este sentido, crea ayudas para hijos e hijas huérfanos como consecuencia de la violencia machista.

Otro reto a abordar ha sido el de la **ampliación del sistema de atención a las víctimas de todas las formas de violencia machista** contra las mujeres. Más allá de las víctimas de la violencia ejercida por pareja o ex pareja o intrafamiliar y de la violencia sexual, la ley regula y amplía el sistema de atención a las víctimas del resto de las manifestaciones de la referida violencia como la trata con fines de explotación sexual, entre otras.

La modificación permite también el **reconocimiento al derecho de reparación de las víctimas** y plantea la obligación de adoptar medidas para garantizar a todas las víctimas y supervivientes el reconocimiento de la verdad, la garantía de no repetición de los hechos violentos y de recuperación a través de los correspondientes recursos públicos de atención. Asimismo, prevé para las víctimas una nueva ayuda económica, compatible con las ya existentes, para supuestos de impago de indemnizaciones establecidas por resolución judicial.

Aumentar la investigación y mejorar el registro y la difusión de datos sobre violencia es otro de los desafíos a los que responde la modificación de la ley. Más allá del trabajo realizado hasta la fecha en dicho ámbito, la ley establece la necesidad de impulsar la implantación de un sistema electrónico de información compartida de casos de las diferentes manifestaciones de la violencia contra las mujeres y plantea la creación de un Observatorio de Igualdad que permita tener una visión global y permanente.

La ley apunta, asimismo, hacia la **superación de la centralidad de la denuncia y de la visión policial-judicial** de la violencia contra las mujeres. Sin menoscabo de la importancia que los sistemas policial y judicial tienen en la intervención contra la violencia contra las mujeres y en la protección de sus víctimas, y consciente de las limitaciones competenciales para legislar en la materia, la ley sitúa en el centro de las medidas los derechos de las víctimas y

supervivientes y su empoderamiento, con independencia de su grado de implicación o colaboración con el procedimiento judicial.

La nueva norma recoge, asimismo, **la interseccionalidad** en sus principios generales como enfoque inspirador de toda la intervención pública en materia de igualdad de mujeres y hombres y establece la necesidad de adaptar la respuesta institucional ante la violencia machista para asegurar el derecho que toda víctima tiene a una atención integral, gratuita, accesible y de calidad, independientemente de su situación personal, social y administrativa y, en particular, el de aquellas que se encuentran en una mayor situación de vulnerabilidad.

El proceso

El proceso de modificación de la ley ha sido participativo. Tras someterse a consulta a todos los departamentos del Gobierno Vasco, a las 3 diputaciones forales y a EUDEL, además de a consulta pública, ha recibido más de 400 aportaciones, tanto de la sociedad civil como de instituciones: cerca de 300 aportaciones de sociedad civil y más de un centenar de distintas administraciones. En el proceso participativo se ha contado con personas expertas en género e igualdad, con las instituciones públicas competentes en la prevención y atención de la violencia contra las mujeres, con agrupaciones feministas, con profesionales que intervienen en la prevención, detección y atención de la violencia contra las mujeres, con agentes sociales, entidades y asociaciones que trabajan con las víctimas de la violencia.

Respuesta del Gobierno Vasco ante la violencia

En el Consejo de Gobierno se ha dado cuenta, asimismo, del Informe sobre la “Respuesta del Gobierno Vasco ante la violencia contra las mujeres en la CAPV”, en el que se detallan los servicios de Gobierno Vasco en materia de violencia contra las mujeres. Junto con Emakunde, seis departamentos del Gobierno (Seguridad, Empleo y Políticas Sociales, Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Salud, Trabajo y Justicia y Educación) ofrecen distintos servicios y prestaciones de manera coordinada. En el informe se cuantifica la inversión realizada en 2018 por el Gobierno Vasco: un total de 25.212.764 euros. En el trabajo multinivel que se está realizando en este ámbito, la respuesta de país supone también tener en cuenta la inversión de las diputaciones (estimada en 7 millones de euros) a la que habría que añadir la aportación de los ayuntamientos. La violencia contra las mujeres es un problema global, estructural y multidimensional. Siendo conscientes de esta realidad y del desafío que supone, la gran mayoría de Departamentos del Gobierno Vasco están comprometidos en dar una respuesta adecuada a esta vulneración de derechos humanos.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO VASCO ELEVA HASTA LAS 24 SEMANAS EL PERMISO PARENTAL EN CASOS DE FAMILIAS MONOPARENTALES

- La medida tendrá retroactividad a fecha 1 de enero de 2020 y su objetivo es favorecer la conciliación de la vida familiar y laboral y, con ello, incentivar la natalidad
- Se pondrá en marcha para las 70.000 personas que trabajan en la Administración General de Euskadi, Ertzaintza, Osakidetza, educación y justicia, pero el Gobierno Vasco anima a su extensión a las sociedades, entes, fundaciones y consorcios del Sector Público Autonómico

El Gobierno ha remitido al Parlamento Vasco un primer borrador de “*Decreto de equiparación de los permisos de conciliación del personal al servicio de la Comunidad Autónoma de Euskadi*”. En él se incluye la propuesta de elevar el actual permiso de 18 semanas, 100% retribuido, por parentalidad hasta las 24 semanas en los casos de familias monoparentales. Este permiso se ampliará en 2 semanas cuando el número de nuevos hijos o hijas sea superior a dos y/o en otras dos semanas si padecen alguna discapacidad.

Una vez aprobado el decreto, esta medida se aplicará de manera directa a las aproximadamente 70.000 personas que trabajan en la Administración Pública Vasca autonómica: Administración General, justicia, Ertzaintza, Osakidetza y educación, pero, además, el decreto posibilita su extensión de todo el sector público autonómico: entes, sociedades, fundaciones, consorcios, etc.

Tendrá retroactividad a fecha 1 enero de 2020 e, igual que el resto de los permisos por parentalidad en vigor, se concederá en los casos ya reconocidos por la Administración Pública Vasca de nacimiento, adopción, guarda, acogimiento, etc.

CONCILIACIÓN Y DIVERSIDAD FAMILIAR

El objetivo del Gobierno Vasco con este decreto pionero es avanzar en las políticas públicas que favorezcan la conciliación de la vida familiar y laboral, un paso necesario para impulsar la natalidad y abordar el reto demográfico que Euskadi tiene por delante. En este sentido, las administraciones públicas tienen la obligación de poner en marcha las medidas más progresistas primero en el ámbito público para poder, así, ejercer un efecto tractor y favorecer su extensión paulatina al ámbito laboral privado.

Esta medida es, también pionera, en el respeto y apoyo a los nuevos modelos de familia que hay en Euskadi. En este caso, las formadas por una sola madre o padre.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 350.000 EUROS A FINANCIAR ENTIDADES QUE MEJOREN Y FOMENTEN LAS RAZAS GANADERAS PURAS

- **En cumplimiento del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, no se concederán ayudas ni subvenciones a las asociaciones que no tengan presencia de mujeres en sus órganos de dirección**
- **Suponen un apoyo a la ganadería de calidad y a la biodiversidad en el entorno rural, pilares básicos de la Cadena de Valor Agroalimentaria.**

El Gobierno Vasco ha aprobado en su última reunión de Consejo la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan para el año 2020 las ayudas a asociaciones y organizaciones ganaderas de razas puras de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con un montante global máximo de 350.000 euros. En cumplimiento del Estatuto de las Mujeres Agricultoras, no se concederán a las asociaciones que no tengan presencia de mujeres en sus órganos de dirección.

Las entidades beneficiarias son las asociaciones ganaderas que gestionan los libros genealógicos de razas puras, ejecutando los programas de mejora (conservación o selección), difundiendo y promocionando la raza y realizando un control de rendimientos y una evaluación de su valoración genética.

Asimismo, estas asociaciones deben difundir los resultados obtenidos y ayudar en la comercialización de los animales y sus productos, permitiendo alcanzar una mayor eficacia en la producción y una mayor rentabilidad de las explotaciones ganaderas, con la progresiva aplicación de programas innovadores y de nuevas tecnologías. También colaboran en el desarrollo e impulso de las zonas rurales y de agricultura de montaña del territorio de la Comunidad Autónoma Vasca.

En el marco del PEGA

Estas ayudas, gestionadas por la Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria, se enmarcan en la decidida política de apoyo a la cadena de valor agroalimentaria, desde la ganadería de calidad, pasando por la biodiversidad en el entorno rural y hasta alcanzar una alimentación sana y sostenible, pilares básicos que se recogen en el Plan Estratégico de Ganadería y Alimentación (PEGA) que marca las líneas troncales de actuación en estos campos para la presente legislatura.

Los gastos subvencionables son:

- Organización y participación en certámenes ganaderos

- Creación o mantenimiento de libros genealógicos
- Pruebas de calidad genética o rendimiento del ganado

Presentación y valoración de solicitudes

El plazo de presentación de las solicitudes para acogerse a esta convocatoria será de un mes contado a partir del día siguiente al de la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Se presentarán por canal electrónico. Las especificaciones para la tramitación de la solicitud, las declaraciones responsables y demás documentación están disponibles en las siguientes direcciones:

http://www.euskadi.eus/ayudas_appa/ (castellano)

http://www.euskadi.eus/laguntzak_naep/ (euskera)

Para el supuesto de que la dotación económica de 350.000 euros sea insuficiente para cubrir el importe máximo de gasto subvencionable de todas las asociaciones beneficiarias, se procederá al prorrateo de la subvención de acuerdo con lo previsto en el la Ley.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 14, 5 MILLONES DE EUROS AL ACUERDO MARCO PARA EL SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y CONFIGURACIÓN DE MATERIAL INFORMÁTICO EN CENTROS EDUCATIVOS PÚBLICOS

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, el Acuerdo Marco para el suministro, instalación y/o configuración de material informático necesario para satisfacer las necesidades educativas y de gestión, tanto de centros educativos como de centros de apoyo (Berritzegunes) públicos dependientes del Departamento de Educación.

El Departamento de Educación dota a los citados centros del equipamiento informático necesario a través de diversos planes, como *Berriztu* o *Sare_Hezkuntza*. Anualmente resulta necesario seguir dotando a los centros de este nuevo equipamiento informático por muy diversas causas, como pueden ser la reposición o renovación de equipos más antiguos, el aumento de necesidad de equipamiento por crecimiento de centros, o para dotar de estas indispensables herramientas centros de nueva creación. En la actualidad, y en el marco del programa *Sare_Hezkuntza*, el Departamento va a iniciar la renovación de la dotación de equipos de alumnado y profesorado sustituyéndolos por equipos más modernos y actuales, así como la renovación de las pizarras digitales sustituyéndolas por pantallas interactivas.

Para llevar a cabo estas adquisiciones se ve como vía más adecuada la celebración de un Acuerdo Marco, debido a que permite realizar las adquisiciones mediante contrataciones derivadas de este acuerdo, en el momento que se precise, y en función de las necesidades.

El valor estimado del Acuerdo Marco asciende a 14,5 millones de euros (IVA excluido), con una vigencia de dos años, pudiendo tener una prórroga de dos años como máximo.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 354.000 EUROS A LAS SUBVENCIONES PARA IMPULSAR LA CREACIÓN CULTURAL

- **A través de estas ayudas el año pasado se apoyaron 56 propuestas culturales en ámbitos como la literatura, el cine, las artes escénicas o la música**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 354.000 euros destinada a la concesión de subvenciones para la creación cultural durante el año 2020. Esta convocatoria, impulsada por el Departamento de Cultura y Política Lingüística, contará este año con seis modalidades, ya que desaparece la modalidad destinada a 'diseños preliminares de proyectos y prototipos'. El pasado ejercicio se apoyaron por medio de estas subvenciones un total de 56 proyectos culturales vinculados a los diferentes sectores culturales.

El objetivo de esta convocatoria es impulsar la creación cultural en diversos ámbitos y facilitar la labor de las y los creadores. Esta línea de ayudas, que abarca la mayor parte de los sectores culturales, se suma a las ayudas que existen en cada sector cultural. La principal novedad de la convocatoria de este año es que desaparece la modalidad destinada a 'diseños preliminares de proyectos y prototipos', al tiempo que se incrementa la dotación económica de dos modalidades: 'Composiciones musicales' (64.000 euros este año, frente a los 50.000 del pasado año) y 'Creación de coreografías' (54.000 euros, frente a los 28.800 de 2019).

Así, la dotación prevista para cada una de las seis modalidades de este año se distribuirá de la siguiente manera:

- Textos teatrales, 52.000 euros.
- Guiones cinematográficos, 104.000 euros.
- Composición musical, 64.000 euros.
- Textos literarios dirigidos a la juventud en euskera, 40.000 euros.
- Cuentos y novelas cortas en euskera, 40.000 euros.
- Creación de coreografías, 54.000.

A través de la última convocatoria, el pasado 2019, se otorgaron 8 ayudas para creación de textos teatrales; otras 8 para la creación de guiones; 9 subvenciones destinadas a la composición musical; 12 ayudas fueron dirigidas a la creación de diseños preliminares; se concedieron 5 para la creación de textos literarios en euskera dirigidos a la juventud; otras 5 ayudas para creación de cuentos y novelas cortas en lengua vasca; y, finalmente, 9 ayudas para la creación de coreografías.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA DESTINA 105.000 EUROS A LA CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA IMPULSAR LA CREACIÓN DE CÓMICS, NÓVELAS GRÁFICAS Y ÁLBUMES ILUSTRADOS

- **A través de estas ayudas, que se crearon al comienzo de la legislatura, este año se apoyarán cuatro proyectos relaciones con la ilustración**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión la convocatoria de subvenciones dirigida a impulsar la creación gráfica de cómics, novelas gráficas o álbumes ilustrados durante el ejercicio 2020. El Departamento de Cultura y Política Lingüística invertirá en esta convocatoria un total de 105.000 euros que se dividirán en dos modalidades. Por un lado, 60.000 euros se dirigirán a impulsar la creación de cómics y novelas gráficas y, a través de la segunda modalidad, se invertirán 45.000 euros en apoyar la creación de álbumes o libros ilustrados.

Esta convocatoria impulsada por la dirección de Promoción de la Cultura nació en 2017 con el objetivo de impulsar el talento de las y los creadores vascos, reforzando el importante trabajo que en Euskadi se viene realizando en este ámbito. Al igual que en los tres años anteriores, este año se contemplan dos modalidades dentro de la convocatoria:

- La primera modalidad destinará un total de cuatro ayudas, de 15.000 euros cada una, a proyectos de ilustración que tengan como objetivo la elaboración de cómics o novelas gráficas.
- A través de la segunda modalidad se destinarán tres subvenciones, de 15.000 euros cada una, a proyectos de ilustración que tengan como objetivo la creación de álbumes o libros ilustrados.

Además, cabe resaltar que esta convocatoria prevé mecanismos con el fin de premiar la labor de las mujeres y de ilustradores e ilustradoras jóvenes. Así, en ambas modalidades, tanto en la de cómics como en la de álbumes ilustrados, entre los proyectos que hayan superado la puntuación mínima se reserva al menos una subvención para personas menores de 30 años y, asimismo, al menos otra subvención para mujeres (en caso de que la persona que acceda a esa subvención reservada para menores de 30 años sea mujer únicamente se reserva una subvención). En 2018 se comenzó a valorar más la 'la calidad artística de la ilustración' (el año pasado se pasó de 40 puntos a 50), así como el 'tratamiento de la ilustración (de 10 puntos se pasó a 30).

Seguridad

AUTORIZADA LA MODIFICACIÓN DEL MODELO DE CONVENIO DE COLABORACIÓN EN MATERIA DE COORDINACION Y COOPERACION POLICIAL

El Consejo de Gobierno ha acordado hoy, a instancias del Departamento de Seguridad, autorizar la modificación del convenio de colaboración a suscribir con Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de coordinación y cooperación policial.

En el modelo de convenio con los ayuntamientos se pactó un periodo de vigencia que abarca el período comprendido entre el día siguiente de la firma de cada convenio específico hasta el 31 de diciembre del año en que se firmó, prorrogable por anualidades salvo denuncia.

La entrada en vigor de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público, ha conllevado la obligación de que los convenios incluyan un periodo de vigencia, proscribiendo la posibilidad de prórrogas automáticas del convenio. Ante esta circunstancia, se ha procedido a modificar la cláusula séptima del modelo de convenio para adecuarla a la normativa vigente.

Así, el convenio entrará en vigor el día de su firma, manteniendo su vigencia durante cuatro años. En cualquier momento antes de la finalización del plazo de cuatro años previsto, los firmantes del convenio podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo de cuatro años adicionales o su extinción.

Una vez aprobado el modelo de convenio por Consejo de Gobierno procede suscribir nuevamente los convenios con los ayuntamientos adheridos, así como con aquellos que pretendan adherirse por primera vez.

Son 64 municipios los que van a renovar el convenio y otros dos municipios han solicitado suscribirlo por primera vez.